



i.8. Datibo komunztaduraren galera: *gizonari* *liburua eman du (v dio)*

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Datibo komunztaduraren galera: *gizonari liburua eman du (v dio)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=8&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

datibo komunztaduraren galera, datiboak, kasua, komunztadura/klitikoak, postposizioak

Deskribapena

Eredu orokorra: Euskaraz, perpauseko argumentu guztiek komunztadura eragiten dute aditz jokatuan. Datibo argumentuak ageri direnean perpausean, datibo komunztadura adierazten dute adizkian. Honen erakusle da datibo argumentua topikalizatuta duen (1) perpausa.

(1)	Gizonari	liburua	eman	dio	emakumeak
	gizona.DAT	liburua.ABS	eman.PTCP	(3ABS).edun.APPL. 3DAT.3ERG	emakumea.ERG

Honako (1) perpausean ikus daitekeenez, singularreko pertsonako datibo komunztadura ageri da *d-i-o-Ø* adizkian, eta datibo komunztadura erakustea da euskaraz ohikoena den eredia.

Hizkera eredia 1: Iparraldeko eta Nafarroako mugako zenbait hizkeratan datibo argumentuak datibo

komunztadura gal dezake. Hala izanez gero, aditz jokatuak ergatibo-absolutibo komunztadura ala absolutibo komunztadura adierazten du soilik:

(2)	Gizonari	liburua	eman	du	emakumeak
	gizona.DAT	liburua.ABS	eman.PTCP	(3ABS).edun.3ERG	emakumea.ERG

Perpauz honetan (2), *d-u-Ø* adizkiak ez du datibo komunztadurarik erakusten.

Ondoren zehazten diren testuinguruetan datibo komunztadura adieraztea hautazkoa da: aspektu datiboetan (*Ni ez **naiz** ausartatzen lan horri*, Dv *Lab* 339); postposizio gisako datiboetan (*Gauza horri ohartu **direnak***, Dv *Lab* 80) eta *begiratu* gisako aditzetako datibo-osagarri bitxietan (*Begiraturen **naiz** bethi zure Ebanjelioko hitzei*, Dv *LEd* 8) (Fernandez eta Landa 2009). Dena den, datu-baseko erantzunetan ez da testuinguru hauetako bakoitzaren inguruko zehaztapenik jaso.

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotu izan dira:

Eredu orokorra (datibo argumentuak datibo komunztadura aditz-inflexioan): mendebaleko eta erdialdeko hizkera guztietan datibo komunztadura adierazten da aditz-inflexioan (Zuazo 2014: 215).

Hizkera eredua I (datibo komunztadura galera aditz-inflexioan): datibo komunztaduraren galera Lapurdiko kostaldean lekukotzen da (Pikabea 1993) bai eta ipar-ekialdeko beste zenbait hizkeratan ere, hala nola nafar-lapurterako eremu zabal batean eta Zuberoan (Etxepare and Oyharçabal 2008).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan datu-basean jasotako erantzunak jasotzen dira. Erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, bi kasuetan, hizkera ereduaren hedadura bat datorren egiaztatzeko.

Hizkera eredua I: aurreikusi bezala, eredu honen berri eman dute Lapurdiko kostaldean (Ziburun), Lapurdiko erdialdean (Larresoron) eta baita Zuberoan (Urđiñarben) ere. Baxenabarre iparraldeko (Oragarreko) berriemaileak ordea, aditz-inflexioan argumentu datiboarekiko komunztadura egiten dela adierazi du. Aurreikusitakoaz gain, Nafarroa Garaiko mendialdeko (Baztango Arizkunen, Erroibarko Mezkitzen eta Aezkoako Orbaizetan) berriemaileek ere, euren hizkeretan datibo komunztaduraren galera lekukotzen dela adierazi dute.

Laburbilduz, euskaraz hedaturaz nagusi den ereduaren datibo komunztadura adierazten da aditz inflexioan. Eredu hau Hego Euskal Herri gehienara hedatzen da, Nafarroako Pirinioetako mendialdea da salbuespena (Baztan, Erroibar eta Aezkoa). Baxenabarreko iparraldea ere datibo komunztadura galeraren eraginpeko eremutik kanpo dago. Bien bitartean, Lapurdiko kostaldetik eta Zuberoara arte hedatzen den eremu zabalean, aditz-inflexioan ez da datibo komunztadurarik adierazten.

Aipamenak

Etxepare, Ricardo and Beñat Oyharçabal. 2008. «Bi datibo egitura ifar-ekialdeko zenbait hizkeratan». *Lapurdum*, 13. 145-158.

Fernández, Beatriz and Josu Landa. 2009. «Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsintax». *Lapurdum*, 13. 159-181.

Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*. Donostia: UPV/ EHU and Kutxa Fundazioa.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

